

«Idaztea artea da, baina artisauaren debozioarekin egin beharrekoa»

Miren Agur Meabe. Idazle lekeitiarrak Espainiako Poesia Sari Nazionala irabazi zuen duela aste batzuk 'Nola gorde errautsa kolkoan' lanari esker. Bere semeari eskaini nahi izan dio saria, izan ere, «berari kendutako denbora eman diot lanari»

JAN ECHEVARRIA

Miren Agur Meabek (Lekei-
tio, 1962) Espainiako
Poesia Sari Nazionala
irabazi zuen duela bi aste Susak
argitaratutako 'Nola gorde errautsa
kolkoan' lanari esker. Euskarazko
liburu batek sari hori jasotzen
duen lehen aldia da, eta epai-
mahaiak esan duenaren arabera,
«euskal poeta garaikide handi-
enetako baten heldutasunezko
lana» da. Hamar urte igaro dira
obra horrek jasotzen duen poe-
ma zaharretik berrieneraino
(2011koa da lehenengoa, eta iazko
urrikoa, azkena), eta idazleak be-
rak onartu duenez, «oso liburu
sendoa eta trinkoa da, bai forma-
ren eta bai edukaren aldetik ere».

Gai ugari biltzen dituen poesia
esperimentaleko liburu hau «la-
pikoan borborka su txikian luza-
ro edukitako salda» bezala defi-
nitzen du Meabek. Sei ataletan egi-
turatuta dago, eta horietako ba-
koitzean gauza ezberdinak landu
ditu. «Umearoko bizipenak has-
teko, benetako emakume eta ema-
kume fiktizioen katalogoa gero...
Eta, hori guztia, gerrak, migra-
zioak, doluak eta planteatu beha-
rreko galderak alde batera utzi
gabe».

Magisteritzan diplomatua eta
Euskal Filologian lizentziatua, bere
ibilbidean poesia, haur literatura
eta helduentzako narrazioak lan-
du ditu lekeitiarrak, kategoria guz-
tietan sari ugari jasoz. Hizkuntza-
ri garrantzi handia eman dio ber-
riro ere 'Nola gorde errautsa



Miren Agur Meabe, konfinamenduan idatzitako 'Itsasoaren atea' gazteentzako eleberriarekin.

kolkoan' liburuan, eta, dioenez,
batzuetan bera ere galdu egiten
da bere labirintoetan; «buelta eta
buelta ibiltzen naiz edukiek eta
adierazleek musika harmoniat-
sua izan dezaten, hots, garden-
tasuna, dotorezia eta sendotasu-
na izan dezaten aldi berean». Zu-

zenketa asko egiten dituela esan
digu, baita murgilaldi asko hizte-
gietan eta maite dituen idazleen
liburuetan ere. Izan ere, bere us-
tez, «idaztea artea da, baina ar-
tisauaren debozioarekin egin beha-
rrekoa».

2006tik Euskaltzaina den auto-

re eta itzultzaile honen arabera,
egia da aniztasun formal handia
dagoela liburuan: «Poema batzuk
narratiboak dira, beste batzuk,
deskriptiboak, eta badaude pro-
sazko poemak, haikuak, herri for-
men oihartzuna dutenak... Zer
esan nahi du horrek? Ba hamar

urtetan esperimentatu egin duda-
la. Formara heltzen gara saiake-
ren bidez, eta, batzuetan, metodo
zientifikoan erabiltzen diren fa-
seak sorkuntzan ere aplikatu behar
dira: lehenengo, gaia aukeratu;
gero, hipotesi bat sortu, experi-
mentatu, testatu eta ondorio ba-
tera iritsi. Orduan, badira poema
batzuk azken formara heldu arte
behin eta berriz idatzi ditudanak.
Idazketa prozesua metamorfikoa
eta esperimentalak izan da».

Baina 'Nola gorde errautsa
kolkoan' ulertzeko erraza al da?
«Beti esaten didate nire liburuak
irakurtzeko esku batean hiztegia
behar dela eta beste eskuan ent-
ziklopedia, baina ez zait axola mo-
mentu honetan nire helduaro li-
terarioaren unean nagoela esan
dezakedalako. Aurretik idatzi di-
tut beste bost poema liburu, be-
raz, hau da momentu honetan ni
nagoen tokia, eta bidean egindako
ikaskuntzak aprobetxatu nahi izan
ditut».

Ordu asko idazmahaiari

Pandemiaren urte honetan kon-
finamenduko poemaren bat ba-
dagoela onartzen du, «baina, egia
esan, konfinamenduan beste lan
bati lotuta egon nintzen. Apro-
betxatu nuen gazteentzako nobe-
la bat idazteko, ebasioa behar nuel-
ako eta bazelako sasoiak gazte li-
teraturara bueltatzeko. Orduan
idatzi nuen 'Itsasoaren atea', fan-
tasia eta errealitatea nahasten di-
tuena. Hala ere, bai, badago poe-
ma bat zeinetan kontaktzen diren
pandemiaren sasoiak izandako
bizipen latz batzuk, baina gure ga-
lerra pertsonal batekin nahastuta:
nire mutil-lagun ohiaren heriot-
zarekin nahastuta. Min handia
dago liburuan, eta neurri batean
liburua bada minak eta gabeziak
eraldatzeko saio bat».

Dena den, azken asteek ospa-
kizunetarako balio izan dute (sa-
ria hoge mila eurokoa da), eta
idazle lekeitiarrak hura jaso zuen
egunean bertan ospatu zuen bere
semeari, afari on batekin.
«Mano a mano egon ginen oso gus-
tura. Biok gaude harro honekin.
Izan ere, berak askotan esaten dit
'Jo ama zenbat ordu, zenbat ordu
idazmahaiari', eta, beno, berarent-
zat ere bada sari hau. Berari ken-
dutako denbora eman diot, eta,
beraz, bion saria da».

Gaurko euskal poesiaz ikusmira

JON KORTAZAR

Aitortuko dut beldur diedala ho-
rrelako galderei. Orain ez denbo-
ra asko, Salamancako Unibertsita-
teak Luis García Jambriña
adiskidearen eskutik eratzten di-
tuen Verinesen nengoela idazleen
elkarrizketetan, «ekharrri zuen sol-
hasak» ea nola zegoen euskal saia-
kera. Berdin zion poesiaz galde-
tu izan balute. Hauxe erantzun
nien: «Ez oso indartsu, baina Sari
Nazionala irabaziz gero, irudia al-

datuko da».

Orduko arrapostua emango dut
hemen eta gaur ere. Horrelako gal-
dera sinpleek erantzun konplexua
dute. Nola dagoen euskal poesia
gaur egun? Eta iruditzen zait pla-
netek egiten duten moduko zirku-
luak egin beharko genituzkeela gai
honetan. Eta euskal kulturaren in-
dustria? Eta euskal liburuak? Eta
euskal irakurleak?

Euskal poesiaren egoera... bada,
ustea besterik ez da, zazpi ezau-
garriz inguratua. Bat: euskal poe-

ta nagusiak joan zitzaizkigun. Gan-
diaga, Lekuona, iaz Lete gogoratu
genuen. Bi: egia da Trantsizio ga-
raiko poetek indarra mantentzen
dutelak. Jordi Graciak aipatu zue-
nez, egoera politikoa aldatu ez de-
nez, ez da erabat aldatu literatur
kanona, eta 70/80ko hamarkadan
hasi ziren idazleek pisu handia
dute. Bernardo Atxagaren, Koldo
Izagirrerren, Joseba Sarrionandiar-
ren, Felipe Juaristiren, Tere Iras-
tortzaren, Itxaro Bordaren lanak
oroitzen ditugu.

Hiru: musikariaren laguntza
eskertuko du beti euskal poesiak.
Ruper Ordorika eta Atxaga, Sarri-
nandia eta 'Hau da ene ondasun
guztia', Kirmen Uribe eta Bingen
Mendizabal, Harkaitz Cano eta
Senperena. Lau: sistemaren bar-
nean, orain hamarkada batzuk bai-
no bazterrerago dago poesia. Lehe-
nago, erdigunetik hurbilago ze-
goen; gaur, poeta gisa hasitako asko
kontaktizuna egitera pasatu dira.

Bost: industria alorrean bere pi-
sua ez da oso zabala. Argitaletxe
handiek pare bat poema liburu ar-
gitaratzen omen dituzte urtero-
urtero, nahiz ez den hori guztiz
egia, Pamielak adibidez, bitik gora
argitaratzeko ahalegin handia egin

duelako. Panorama asko aldatu da
poetek sorturiko Balea Zuria ar-
gitaletxea agertu den unetik. Sei:
sistema txikietan, idazle asko dira
poesia argitaratuz hasten direnak,
nahiz eta gero liburu bakarreko
poeta bihurtu. Zazpi: eta hala ere,
kulturaren inork asmatzen ez dituen
zartadak gertatzen dira, ezus-
tekoak, aurretik ikusten ez diren
ekintzak.

Eta zortzi: Miren Agure Meabek
Poesia Sari Nazionala irabazi du,
euskaraz lehena da sari hori ora-
in ezagutzen dugun moduan da-
goenetik. Bestela bigarrena litza-
teke, zeren lehenago Gabriel Ares-
tik irabazi zuen, eta ez da inondik
inora aitaponteko txarra.